

## KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Ez jo berriro, Sam



Amaia Alvarez Uribe

Berriki Nafarroako liburu dende 2017ko euskarazko liburu onenaren saria eman dioten liburuarekin nator: *Caliban eta sorgina*. 2004an ingelesez, 2010ean gaztelaniaz eta iaz heldu zen euskaraz gure artera Edurne Lazkano eta Aitor Arrutiren lanari esker.

Liburukote sexya da (ia 500 orrialde ditu), neuronentzako kitzikagarri, pentsatzeko eta begirada kritikoa garatzeko aukera ematen digulako Silvia Federicik lan mardul honetan. Gaia sorgin-ehiza da, nagusiki Europan gertatu zena, baina Amerikan eta Afrikan ere aurkitu daitekeena. Erdi Aroaren amaieran hasi zena, baina egun, oraindik, munduko zenbait lekutan arrastoak utzi dituena. Gainera, Europako sorgin, Amerikako kolonizatu eta Afrikako esklaboaren arteko konexioak egiten ditu begirada zabalduz.

Egileak dokumentazio lan izugarria egin du eta balio handiko ekarpen teorikoa: sorgin-ehiza sozialki, ekonomikoki eta politikoki kokatu du eta historia berrirakurri digu ikuspegi feminista batetik, generoa, klasea eta arraza kontuan izanik.

Lehen kapituluak aurrekariak emango dizkigu Erdi Aroko matxinada giroaren berri emanez. Bigarren kapituluaren kapitalismoaren sorrerari buruz hitz egingo digu, eta erakutsiko zein mekanismo jarri ziren martxan sistema feudaletik sistema kapitalistara pasatzeko eta sorgin-ehizaren funtzioa zein izan zen argitzeko. Hirugarren kapituluaren gorputzaren desjabetzeari bu-


**Caliban eta sorgina**

SILVIA FEDERICI

Itzultzaileak:

Edurne Lazkano eta Aitor Arruti  
Elkar eta Jakin, 2017

*Silvia Federici (Parma, Italia, 1942) idazle, irakasle eta ekintzaile feminista italiar-estatubatuarra da.*



ruz arituko zaigu, eta sexu politiken sorreraz. Laugarren kapituluaren sorgin-ehiza Europan nola gertatu zen aletuko du hitz, grafiko eta irudien laguntzaz. Bosgarren kapituluaren, amaitzeko, "Mundu berri"-ko kolonizazio eta kristautzea izango ditu hizpide, eta metropoli eta kolonien arteko urte, zilar, diskurtso eta irudikapen joan-etorriak agertuko dira.

Lurra, gorputza, harreman sareak eta gizatasuna erauziz eta zigorrak, propaganda eta beldurra hedatuz ordena berria nola ezarri zen kontatuko digu. Botere harremanak onartzen ez zituzten erresistentzia taldeak birrindu zituztela postulatu, bereziki emakume pobrez zaharrak: "Emakumea zapalduz, klase agintarietiek proletariotza osoa azpiratu zuten".

Liburu batzuek, pelikulek bezala, soinu banda dute, eta honek, niretzat, Reincidentesen *La historia se repite* du. Liburu proposa orain irakurtzeko. Martxoaren 8ko greba mundialaren inguruan. ■